

## **Aldarrikapen sozialak izango dira Olatu Talka jaialdiaren ardatz maiatzaren 25, 26 eta 27an**

### **Inaugurazio ekitaldia Zuloaga Plazan izango da 25ean 20:00etan**

Maiatzaren 25,26 eta 27an izango den Olatu Talka jaialdiaren programa aurrerapena egin da gaur, eta bertan azaldu denez, hainbat aldarrikapen sozial izango dira jaialdiaren ardatz. Jon Insausti Kulturako zinegotzi ordezkaria, Jon Aizpurua Olatu Talka jaialdiko zuzendaria, Agurtzane Intxaurreaga antzerkigilea eta Alicia Fernández de Piérola Matazak Indarkeria Sexistaren Aurka proiektuko kidea izan dira prentsaurrekoan Olatu Talka jaialdiaren lehenengo xehetasunak ematen.

Jon Insaustik eta Jon Aizpuruak jaialdiaren inguruko hainbat datu eman dituzte, eta aurtengo jaialdiaren prestaketa lanak bikain doazela azaldu dute, orain arteko datu batzuk eskainiz:

- **Programaziorako proposamenak** egiteko deialdian **135** eragilek bidali zuten proposamenen bat eta **horietatik 100 ekimen baino gehiago egingo dira.**
- Olatu Talkako **Kontxa Gaumarket** merkatuan postua jarri ahal izateko deialdian **145 postu jartzeko eskaerak** jaso ditugu. **Horietatik 86 izango dira** Kontxa Gaumarketan, batzuk **maiatzaren 25ean** eta besteak **26an**, 18:00etatik 00:00etara. Horietako **beste asko Amaran** egingo den beste merkatu batean izango dira.
- **Kontzertuak eskaintzeko 86 taldek edo bakarlarik** eman dute izena., eta guztira hiru egunetan 35 bat kontzertu izango dira.
- Beste deialdi bat ere egin du Olatu Talkak, hain zuzen, **Izarrak Plazara** ekimenean parte hartzeko, eta inoiz baino arrakastatsuagoa izan da: **5 eta 11 urte bitarteko 75 hurrek** (24 talde edo bakarlari) beraien talentua erakutsiko dute **Larratxo Kultur Etxean maiatzaren 26an**, eta **12 eta 17 urte** arteko kategorian **27 talde edo bakarlari** aurkeztu dira, eta casting batean hautatutako 6 talde edo bakarlariek **maiatzaren 27an Olatu Talkako agertoki nagusian, Zuloaga plazan**, emanaldia eskainiko dute, 11:00etatik aurrera.

**Jon Insaustik**, datu hutsetik harago, Olatu Talka **jaialdiaren filosofia** izan du hizpide: “**#HiriaEgin** leloari eutsiko dio Olatu Talkak, eta aurtan **hiria** batez ere **ikuspegi sozialetik eraikitze**ko saioa egingo du Jaialdiak. Olatu Talkak hiritarrak ditu protagonista, hiritarrak dira jaialdiaren egileak eta aurtan ikusi dugu gai sozialak ardatz hartuta eraikiko dela hiria. Hiria arlo sozialetik eraikitzeko funtsezkoak diren hainbat gai landuko dituzte herritarrek: esaterako, emakumeen kontrako indarkeria; hiriaren aniztasuna; eta baita, mugikortasunaren inguruko hainbat ekimen ere...”.

Ondoren, ekitaldi zehatzak aurkeztu dituzte bertaratutakoek.

### **ANIZTASUNA**

#### **Irekiera Ekitaldia, maiatzaren 25ean, Zuloaga Plazan, 20:00**

Agurtzane Intxaurreaga antzerkigileak hiriaren aniztasuna aldarrikatzea helburu duten pare bat ekimen aipatu ditu. Lehenik eta behin Olatu Talkaren **inaugurazio ekitaldian** bertan **aniztasun** hori izango dela ardatz esan du Intxaurreagarak, bera baita ekitaldiko koreografoa. Ekitaldiak **Saharaz hegoaldeko Afrika** izango du oinarri, gurera etortzen diren herritarrek eta hona iristeko dituzten gorabeherak ardatz hartuta. Honako hauek parte hartuko dute:

- Musika **Donato Goienetxe** konposatzaileak egin du.
- **Borja Ariasek** musika moldaketak egin ditu.
- Francisco Escudero Kontserbatorioko **Easo Jazz Orkestra** izango da oholtza gainean.
- **Francisco Escudero Kontserbatorioko Perkusio taldeak** joko du.

- **Musika eta Dantza eskolako abesbatza** eta **dantza** taldeak ariko dira bertan.
- **Nosa Marshal** eta **Olana Liss** musikariak ere izango dira.
- **Xabier Mujikak** egin du jantzien diseinua.

## **Munduko Jolasen Topaketa, maiatzaren 26an, Blas de Otero Plaza, 17:00 – 21:00**

Tabakalera ondoko Blas de Otero plazan, Munduko Jolasen Topaketa egingo da. Ekimen hau “**Ongi etorri eskolara**” proiektuaren baitakoa da; Donostiako Udaleko Kultura Aniztasunaren Bulegoarekin batera Donostiako sei ikastetxetan **aniztasun kulturala** eta **euskara sustatzeko** da; jaialdiaren helburua, berriz, eskolan egiten den lanketa auzora eta hirira ateratzea da.

Jaialdian jatorria beste herrialde batean duten donostiarrek eta euskaldun jatorria duten hiritarrek topo egingo dute, batak besteari bere kulturarekin batera dakarren aberastasuna erakusteko. Hau honela izan dadin, **kirola, gastronomia, musika, bertsoak, dantzak, jolasak, ahozko kontakizunak, hizkuntzak, erakustaldiak, tailerrak**,... egongo dira. Jatorri desberdinetako donostiarrek parte hartuko dute, norberak dakarrena besteei erakutsiz, elkarrenganako aurreiritziak puskatu eta elkarbizitza hobetzen laguntzeko.

## **BIOLENTZIA SEXISTA**

### **Matzak Indarkeria Sexistaren Aurka, maiatzaren 26an, Zuloaga Plaza**

**Alicia Fernández de Piérola Matzak Indarkeria Sexistaren Aurka** proiektuko kideak bortizkeria sexistaren gaia landuko duten proiektuak aipatu ditu. Batetik, Matzak Indarkeria Sexistaren Aurka ekimena maiatzaren 26an Zuloaga Plazan izango da, bere proiektua ezagutaraziz eta gaiaren inguruko kontzientziarioa bultzatzen. Ekimena 2014an sortu zen bortizkeria sexistaren adierazpide guztiak salatzen, eta horretarako kanpaina bat abiatu zen: **bufanda erraldoia iruteari** ekin zioten, kilometro askoko pieza artistikoa osatuz. Zatiak pertsona anonimoek, elkarrekin eta funtsean gaiaren inguruan kontzientzia duen edonork egin ditzake eta elkarlanaren emaitza da 4 kilometro baino gehiagoko bufanda. Olatu Talkan ere ekarpena egingo zaio proiektu honi.

### **Bortizkeria sexistaren aukako ekimena, maiatzaren 27an, Zuloaga Plazan 13:30ean**

Itxiera egunean **ekitaldi nagusia bortizkeria sexistaren aurkako ekimena** izango da, eta bertan parte hartuko dute Olatu Talkako hainbat eragilek. Bioletzia sexistarik gabeko gizarte bat aldarrikatzeko aipatutako bufanda hari gisa hartuta, hainbat elkarrekin bat egingo dute aldarrikapenarekin eta haien ekarpena egingo dute. Ekitaldi berezia izango da eta herritarrei dei egiten diegu bertara daitezen.

Horrez gain, gaiarekin lotutako beste ekimen batzuk ere izango dira, esaterako, **Maldatxoko puntu kritikoa esku-hartze artistiko-urbanistikoa** egingo da Udaleko Berdintasun Departamentuaren parte hartzearekin.

## **MUGIKORTASUN INKLUSIBOA**

### **ElkarBIZI Jaia, maiatzaren 26an, Txaparrenen, 10:00 – 18:30**

**Jon Aizpuruak** mugikortasunaren inguruan egingo den **ElkarBizi** jaiari buruzko informazioa emango du. Jai horretan **mugikortasun arazoak dituztenen, bizikleten, oinezkoen, patinatzaileen eta abarren arteko elkarbizitza landuko** da, izan ere, hainbat arazo sortu ohi dira inguru horretan, eta modu positiboan landu nahi dira. Jai honen bultzatzaile nagusiak **IZBE** (Intxaurrondo Zaharreko Bizilagunen Elkarte), **Intxaurdi Auzo Elkarte** eta **Intxaurrondo Berri Emakumeen Elkarte** dira, baina beste hainbat elkarrekin ere parte hartuko dute, esaterako, **Lotzen ADD**, **GIMBE** (Gipuzkoako Mendi Bizikleta Elkarte), **Gipuzkoa Solidarioa** eta **Easo Avengers**.

**OLA  
TU !!!  
TALK  
A !!!**

